- Ebakortzen eta haginaren hipomineralizazioa (EHH)
- Zigilatzaileen prebalentzia

Hortzetako txantxarra (6.-12. taulak)

Lehen hortzaldian, txantxarraren prebalentzia % 29,1ekoa da 5 urtekoen artean, eta % 35era arte igotzen da 7 urtekoen artean (6. taula). Azpimarratu behar da 5 eta 7 urteko ikasleen % 2,2-2,4k txantxar-patologiaren maila altua dutela lehen hortzaldian.

Bigarren hortzaldian, prebalentzia % 2,6koa da 7 urtekoen artean, % 25,9koa 12 urtekoen artean eta % 33,4koa 14 urtekoen artean. 6. taulan ikusten den eran, txantxarra duten ia ikasle guztiak erasandako 1-4 hortza arteko mailetan daude.

Txantxarrak erasandako lehen hortzaldiko hortzen batezbestekoa 1,11koa da 5 urtekoen artean, eta 1,34koa 7 urtekoen artean. Indizearen % 68-75 bitarte (tx) osagaiari dagokio (tratatu gabeko lehen hortzaldiko hortz txantxardunak), eta lehen hortzaldiko hortz enpastatuen osagaiari dagokio % 25 5 urtekoen artean eta % 29 7 urtekoen artean. Lehen hortzaldiko azalaren araberako indizea (tx-gea) 2,19koa da 5 urtekoen artean, eta 2,75ekoa 7 urtekoen artean.

TXGEH hortzen batezbestekoa (bigarren hortzaldia) 0,03koa da 7 urtekoen artean, 0,50ekoa 12 urtekoen artean eta 0,78koa 14 urtekoen artean. 7 urtekoen

artean, TXGEH indize osoa tratatu gabeko txantzarrei dagokie (TX). 12 urtekoen artean, TX osagaiari dagokio indize osoaren % 30, eta zifra hori % 20,5era jaisten da 14 urtekoen artean. Txantxarragatik galdu diren hortzen osagaiari (G) TXGEH indizearen % 1-2 soilik dagokio 12 eta 14 urtekoen artean. Enpaste bidez tratatutako bigarren hortzaldiko hortzen osagaiari (E) TXGEH indizearen % 68 dagokio 12 urtekoen artean, eta % 78,6 14 urtekoen artean. Azalaren araberako indizea (TXGEA) 0,05ekoa da 7 urtekoen artean, 0,70ekoa 12 urtekoen artean eta 1,05ekoa 14 urtekoen artean (7. taula).

Hortzetako txantzarra, lurraldearen arabera

5 eta 7 urtekoen artean, lehen hortzaldiko txantxarraren prebalentzia oso parekoa da 3 lurraldeetan; hots, ez da desberdintasun adierazgarriarik ikusten (8. taula). Bigarren hortzaldiko txantxarraren prebalentziari dagokionez, Arabako ikasleek nabarmen txantzar gutxiago dute beste 2 lurraldeetakoek baino, bai 12 urtekoen artean bai 14 urtekoen artean. Lehen eta bigarren hortzaldietako txantzar-indizeen lurralde arteko konparazioan ez da desberdintasun nabarmenik ikusten, 12 urtekoen taldean izan ezik, adin-talde horretan indizea txikiagoa baita Araban (0,32 Araban versus 0,43 Gipuzkoan eta 0,59 Bizkaian; $p = 0,002$).

Hortzetako txantzarra, bizilekuaren tamainaren arabera

5 eta 7 urtekoen adin-taldeetan, lehen hortzaldiko txantxarraren prebalentzia, bizileku-eremuaren ikuspegitik aztertuta, handiagoa da landaguneetan bizi diren ikasleen artean. Alabaina, bigarren hortzaldian 12 urtekoen taldean bakarrik gertatzen da hori ($p < 0,001$). Lehen hortzaldiko txantzar-indizeen analisiak erakusten du patologiaren batezbestekoa handiagoa dela landaguneko 7 urteko ikasleen taldean (1,66 versus 1,26; $p = 0,03$). Lehen hortzaldiko txantzar-indizeak, orobat, handiagoak dira landaguneetan, hala 12 urtekoen taldean ($p = 0,001$) nola 14 urtekoenean ($p = 0,04$).

Hortzetako txantzarra, sexuaren arabera

5 eta 7 urtekoen adin-taldeetan, lehen hortzaldiko txantxarraren prebalentziari dagokionez, gizonezkoena eta emakumezkoena parekoak dira, ez baitago desberdintasun esanguratsurik. Bigarren hortzaldiko txantxarraren prebalentziari dagokionez ere ez da desberdintasunik ikusten sexua aldagaiaren arabera, 7 urtekoen taldean izan ezik (prebalentzia handiagoa gizonezkoen artean; $p = 0,04$). Indizeak sexuaren arabera aztertuta, desberdintasun puntual batzuk ikusten dira; lehen hortzaldian, mutilen indizea handiagoa da 7 urtekoen artean

($p = 0,049$), eta bigarren hortzaldian nesken indizea handiagoa da 14 urtekoen artean ($p = 0,026$).

Hortzetako txantxarra, gurasoen jatorriaren arabera

5 eta 7 urtekoen artean, lehen hortzaldiko txantxarraren prebalentzia 20 puntu handiagoa da guraso atzerritarrek dituzten ikasleen artean guraso espainiarrak dituztenetan baino ($p < 0,001$). Desberdintasun horiek ikusten dira bigarren hortzaldian ere, baina intentsitate txikiagoz. Txantxar-indizeak, lehen eta bigarren hortzaldietan, sistematikoki handiagoak dira jatorri atzerritarreko ikasleen artean (10. taula; $p < 0,001$).

Hortzetako txantxarra, maila sozial okupazionalaren arabera

Maila sozial okupazional baxuko 5 eta 7 urteko ikasleen artean, lehen hortzaldiko txantxarraren prebalentzia 16 puntu handiagoa da maila altuko parekideena baino ($p < 0,001$). Bigarren hortzaldian, joerari eusten zaio 12 urtekoen taldean ($p < 0,001$) 10 puntuko aldearekin, bai eta 14 urtekoenean ere ($p = 0,02$), prebalentzian 4 puntuko aldearekin. Txantxar-indizeak, lehen eta bigarren hortzaldietan, handiagoak dira maila sozial okupazional baxuko ikasleen artean aztertutako adin-talde guztietan ($p < 0,001$).

Hortzetako txantxarra, fluorazio sistemikoaren arabera

Lehen hortzaldian zein bigarrenean txantxarra duten haurren artean, prebalentziak ez du loturarik ikastetxea dagoen lekuko fluorazio sistemikoarekin. Alabaina, lehen hortzaldiko txantxar-indizea handiagoa da fluoraziorik gabeko udalerrietako 5 urteko ikasleen artean (1,35 versus 0,99; $p = 0,01$). Era berean, 14 urteko ikasleen bigarren hortzaldiko TXGEH indizea handiagoa da fluoraziorik gabeko udalerrietan (1,01 versus 0,69; $p = 0,001$).

Hortzetako txantxarra, eskuilatze-maiztasunaren arabera

7 urtekoen artean, lehen hortzaldiko txantxarraren prebalentziak lotura du eskuilatze-maiztasunarekin ($p = 0,001$). Gauza bera gertatzen da bigarren hortzaldian 12 eta 14 urtekoen artean ($p = 0,02$ eta $p = 0,03$, hurrenez hurren). Txantxar-indizeak, 5 eta 7 urtekoen lehen hortzaldian ($p = 0,02$) eta 12 urtekoen ($p = 0,008$) eta 14 urtekoen ($p = 0,003$) bigarren hortzaldian, txikiagoak dira horzak gutxienez egunean 2 aldiz eskuilatzen dituztenen artean.

Hortzetako txantxarra, dentistarenera egindako bisiten arabera

Txantxarraren prebalentzia, bai 5 eta 7 urtekoen lehen hortzaldian, bai 12 eta 14 urtekoen bigarren hortzaldian, handiagoa da azken 12 hilabeteetan dentistarenean izan diren ikasleen artean. PADI erabili izanak edo ez erabili izanak ez du loturarik txantxarraren prebalentziarekin. 5 eta 7 urtekoen artean, lehen hortzaldiko txantxar-indizeak handiagoak dira dentistarenean izan direnen artean ($p < 0,001$). Bigarren hortzaldian 12 urtekoen taldean bakarrik gertatzen da hori ($p < 0,001$). Txantxar-indizeak ez dira aldatzen PADIko dentista bat aukeratu izanaren edo ez izanaren arabera.

Erregresio lineal anizkoitzak, txgeh/TXGEH indizeak mendeko aldagai gisa hartuta

12. taulan jaso dira azkenean txgeh indizearen (5 eta 7 urte) eta TXGEH indizearen (12 eta 14 urte) azalpen-ereduetan sartu diren aldagaiak; hau da, aldagai nahasle potentzialen arabera doituta jaso da efektua. Taularen baloraziotik, eta aurreko aldagai biko analisisien taulekin alderatuta, honako hau azpimarra daiteke:

- Sexuak eragin adierazgarria du, baina zentzu desberdinarekin lehen hortzaldian eta bigarrenean. Izan ere, mutilen txgeh indizearen batezbestekoa 0,20 handiagoa da neskena baino (nahieran hartu dugu kontuan analisirako erreferentziarako kategoria gisa), baina TXGEH indizea, berriz, 0,13 txikiagoa da ($p = 0,007$).
- Maila sozialak eragin adierazgarria du bai txgeh indizean bai TXGEH indizean. Hain zuzen ere, gradiente garbia da: zenbat eta maila sozial altuagoa (maila sozial baxuarekin alderatuta), orduan eta txikiagoak dira indizeak ($p < 0,001$).
- Adingabearen jatorri-herrialdeak ere (espainiarra versus atzeritarra) eragin adierazgarria du bai txgeh indizean ($\beta = 1,40$; $p < 0,001$) bai TXGEH indizean ($\beta = 0,29$; $p < 0,001$): indizeok handiagoak dira jatorri atzeritarrekoen artean.
- Bizilekuaren populazio-tamainak eragin adierazgarria du lehen hortzaldiko txantxar-indizeetan ($p = 0,02$) eta bigarren hortzaldiko txantxar-indizeetan ($p = 0,003$): indizeak handiagoak dira landaguneetan bizi diren ikasleen artean.
- Ur fluoraturik eduki ez dutenen artean (nahiz eta dagoeneko etenda egon), txgeh indizea 0,31 handiagoa da ($p = 0,004$), eta TXGEH indizea, 0,14 handiagoa ($p = 0,012$), ur fluorduneko eremuetan bizi izan diren eskola-umeen indizeekin alderatuta.

- Hortzak eskuilatzeak ere eragin adierazgarria du txgeh ($p = 0,003$) eta TXGEH ($p = 0,009$) indizeetan: eskuilatze-maiztasun txikiagoa indize handiagoekin lotuta dago.

Azpirarratu behar da dentistarenera egindako bisiten maiztasunaren aldagaia kendu egin dela aldagai anitzeko analisitik, nahasterik ez eragiteko; izan ere, nahiz eta indizeak handitu bisita gehien egin dituztenen artean, interpretazioa aurreko aldagaiei emandakoaren oso bestelakoa baita (txantxarra patologia gisa neurtzen da), indizeen igoera sendatutako hortzekin lotuta dagoelako.

Egoera periodontala (13. taulatik 18.era)

Egoera periodontalen prebalentzia (13. taula)

Euskadiko ikasleen artean, egoera periodontalen prebalentzia (odoltzea eta lertzoa) % 12koa da 7 urtekoen artean, % 36,1koa 12 urtekoen artean, eta % 44,2koa 14 urtekoen artean. Odoltzearen prebalentzia % 8,1koa da 7 urtekoen artean, % 22koa 12 urtekoen artean, eta % 24koa 14 urtekoen artean. Azkenik, 7 urteko ikasleen % 3,9k lertzoa dute, eta ehuneko hori % 14,3ra igotzen da 12 urtekoen artean, eta % 20,3ra 14 urtekoen artean.

Erasandako seirenen batezbestekoa (14. taula)

7 urtekoen taldean, 6 seiren ebaluagarrietatik, 2,2 gelditzen dira kanpoan, 3,6 osasuntsu daude, 0,17k odoltzea dute eta 0,05ek lertzoa dute. 12 eta 14 urtekoen taldeetan kanpoan utzitako seirenak 0,05 eta 0,08 dira, hurrenez hurren. Seiren osasuntsuen batezbestekoa 4,68 eta 5,00 artekoa da; odoltzearena 0,73 eta 0,87 artekoa, eta lertzoarena, seirenen 0,23 eta 0,36 artekoa.

Egoera periodontalen prebalentzia, aldagaien arabera (15. eta 16. taulak)

Bizkaiari bizi diren ikasleek egoera periodontal okerragoa dute adin-talde guztietan. Sexua aldagaiak eragina du 12 eta 14 urteko ikasleen egoera gingibalean: hortzoien egoera hobea ikusten da emakumezkoen artean (10 puntuko aldea hortzoi osasuntsuen prebalentzian; $p < 0,001$). Gurasoen jatorriak eragina du 7 eta 12 urtekoen hortzoietakoa osasunean (hortzoietakoa osasun okerragoa jatorri atzerriarrekoen artean). Azkenik, eskuilatze-maiztasun handiagoa egoera gingibal hobearekin lotzen da 12 urteko ($p = 0,003$) eta 14 urteko ($p = 0,008$) ikasleen artean. Aztertutako gainerako aldagaiei dagokienez (hiriguneetan/landaguneetan bizitzea, maila sozial okupazionala, fluorazio sistemikoa eta dentistarenera egindako bisitak), ez da desberdintasun esanguratsurik aurkitu.

Erasandako seirenen batezbestekoa, aldagaien arabera (17. eta 18. taulak)

Aztertutako aldagai nagusiek ez dute loturirik erasandako seirenen batezbestekoekin, garrantzi kliniko urria duten kasu oso puntualetan izan ezik, 17. eta 18. tauletan ikusten den eran.

Maloklusioak (19. taulatik 21.era)

Maloklusio ertainen edo larrien prebalentzia % 17,8koa da 12 urtekoen artean, eta % 14,3koa 14 urtekoen artean (19. taula). 12 urteko ikasleen % 4,6k eta 14 urtekoen % 11,1ek ortodontzia-aparatua zuten miaketa egin zen unean. Maloklusioei dagokienez, aztertutako aldagai nagusien arabera banaketan ez da desberdintasun adierazgarririk ikusi aztertutako bi taldeetako batean ere (12 eta 14 urtekoak). Aipatzekoa den gauza bakarra da maloklusio-diagnostikoak prebalentzia handiagoa duela hiri-inguruneetan bizi diren ikasleen artean.

Hortz-fluorosia (22. taula)

Hortz-fluorosiaren emaitzak 7 eta 12 urtekoen taldeetarako bakarrik aurkeztu dira. Oro har, 7 urteko ikasleen % 6,7k eta 12 urtekoen % 10,6k dute nolabaiteko fluorosia esmaltean. Gehien aurkitu diren fluorosi motak dira ÇeztabaidagarriË gisa katalogatutakoak (% 3,6-5,5), eta, jarraian, Çoso arinË gisa katalogatutakoak (% 1,8-4,1); bi mota horietakoak dira diagnostikatutako fluorosi guztien % 80-90. Parametro hori ebaluatu zitzaizen 7 eta 12 urteko ikasleen lagin osoan (n = 2.397), fluorosi ertaineko 5 kasu soilik diagnostikatu ziren, eta fluorosi larriko kasu bakar bat ere ez.

Hortz-traumatismoen prebalentzia (23. taula)

23. taulan, gutxienez hortz-traumatismo bat duten ikasleen prebalentzia jaso da. Zifrak % 0,5-0,8 artekoak dira lehen hortzaldian (5 eta 7 urte), eta % 0,1ekoak bigarren hortzaldian (12 eta 14 urte).

Ebakortzen eta haginaren hipomineralizazioaren prebalentzia (24. taula)

24. taulan, ikusten da ebakortzen eta haginaren hipomineralizazioaren prebalentzia % 15,2koa dela 12 urtekoen artean. % 11,5ek modalitate arina dute, eta % 3,7k, ertaina/larria.

Fisura-zigilatzaileen prebalentzia (25. taulatik 27.era)

25. taulan, gutxienez zigilatzaile bat duten ikasleen prebalentzia jaso da. Ikusten denez, 12 eta 14 urtekoen bigarren hortzaldian, zigilatzaileen prebalentzia % 9,7koa da 12 urtekoen artean, eta % 9,3koa 14 urtekoen artean. Aldagaien eragina aztertuz ikusten da zigilatzaileen presentzia handiagoa dagoela hiriguneko ikasleen artean 14 urtekoen taldean (% 10,3 versus % 5,1 landagunear; $p < 0,05$).

Eztabaida errazte aldera, lehendabizi laginaren adierazgarritasuna aztertuko dugu, eta azterlanaren mugak azalduko ditugu. Gero, txantxarrak Euskadiko ikasleen artean izandako bilakaera aztertuko dugu; horretarako, dagozkion konparazioak egingo ditugu 1988ko¹, 1998ko², 2008ko³ eta 2018ko⁴ inkestekin. Jarraian, egoera periodontalaren eta hortz-fluorosiaren bilakaerak aztertuko ditugu, 1988-2023 aldiaren azterketa analitiko baten bidez. Bukatzeko, Euskadiko haurren aho-hortzetako osasunaren maila aztertuko dugu, Espainiarekin alderatuta, Espainian 2020an egindako ahoko osasunari buruzko azken inkestaren¹⁰ datuen arabera.

Laginaren adierazgarritasuna

EAEko populazio-eroldari¹¹ jarraikiz, populazioa 2.191.613 biztanlekoa zen 2022an, proportzio hauetan banatuta hiru probintzietan: % 15,2 Araban, % 32,8 Gipuzkoan eta % 52,0 Bizkaian. Azterlan honetan, laginak ia bere horretan jarraitu die biztanleriaren banaketaren proportzio horiei: % 14,8 Araban, % 32,8 Gipuzkoan eta % 52,4 Bizkaian. Era berean, EAEko populazioaren % 19 10.000 biztanlera arteko udalerrietan bizi da, eta zifra hori berdin-berdina da lagin honetan (%19,1).

Azterlanaren mugak

Azterketa epidemiologikoa den heinean, azpimarratu behar da zenbait muga dituela, eta aztertu behar da zer eragin izan dezaketen muga horiek lortutako emaitzetan. Azterketa epidemiologiko deskriptibo batean zenbait inkestagilek parte hartzen dutenean (eta hori gertatu da gure kasuan), bildutako datuen fidagarritasuna da kontuan hartu beharreko lehen alderdi garrantzitsua. Azterlan honetan, azaldu dugun eran, odontologo/estomatologo batez eta erregistra-

tzaile batez (higienista edo hortz-laguntzaileak) osatutako 10 taldek parte hartu dute. Azpimarratu behar da talde horietatik 7k parte hartu zutela 2018n egindako inkestan. Diagnostiko-aldagarritasunaren arriskua murrizteko, xehetasunez azaldu da (*Materiala eta metodoak* atalean) zer neurri hartu ziren (kalibratze teoriko-praktikoko saio bat) eta zer emaitza atera ziren saio horretan, ateratako komuntadura kuantifikatuta. Horrelako zeharkako azterlanen esparruan, ateratako Kappa balioak (0,68tik gorakoak) balio onen eta oso onen artekoak izan dira. Behatzaile arteko ebaluazio horrez gainera, behatzaile barneko analisia ere egin zen, talde bakoitzak laginaren % 10ean azterketa bikoitza eginez. Emaitzak ere aurkeztu dira, eta oso onargarriak dira. Kritikagarria izan daiteke behatzaile barneko ebaluazio hori saio berean egin zela, eta sinesgarritasun pixka bat galdu dezakeela horregatik, baina ikasle horien bigarren azterketa beste data batean egitea ez zen bideragarria, ez kostuaren ikuspegitik, ez logistikarenetik. Ez dirudi oso gertagarria inkestagileak, 20-25 ikasleri azterketa egin ostean, zehatz-mehatz gogoratzea zer diagnostiko egin duen aurretik. Laginaren diseinuari dagokionez, laginaren tamaina exijentzia handiz kalkulatu zen (% 3ko zehaztasuna, $p = q = 0,50$), lurralde-mailan aise egin ahal izateko analisiak. Adibide gisa, esan dezakegu fitxetan % 5eko informazio-galerak aurreikusitako zirela, eta azkenean % 0,8 pasatxo izan zirela. Amaierako lagin-tamainak % 16,7an gainditu zuen hasieran aurreikusitako tamaina, eta horrek ez ditu aldarazi lurralde bakoitzerako aurreikusitako proportzioak. Hain zuzen ere, laginaren tamaina handitu da, nagusiki, gurasoen/tutoreen aldetik onarpen handiagoa egon delako (% 82) hasieran aurreikusitakoa baino (% 65), eta berariaz erabaki zelako ez uztea aztertu gabe gurasoen/tutoreen baimena zuen ikasle bakar bat ere.

Unitateen aukeraketari dagokionez, diseinu geruzatua (lurraldeka eta adin-taldeka) eta etapa bikoa (ikastetxea lehenbizi eta ikastalde zehatza ondoren) aukeratu zen, irizita horixe dela horrelako azterketetara hobekien egokitzen dena, lurralde-mailako zein adin-taldeen araberako banaketa egokia bermatu nahi bada. Lagin-banaketa behatuta, baieztatu daiteke lagina adierazgarria dela, bai aztertutako lurraldeari dagokionez, bai EAE osoari dagokionez, eta, orobat, errespetatu dela bizilekuaren populazio-tamainaren araberako banaketa.

Azterlan honetan erabilitako irizpide diagnostikoak, nahiz eta batzuek kritikatuz, horrelako inkesta epidemiologikoetan erabili ohi direnak dira. Txantxar-irizpideei dagokienez, OMEK gomendatutako txantxarren irizpideei jarraitu zaie. Azken urteetan, hainbatek adierazi dute irizpide horiek kanpoan uzten dituztela zuloa egin aurreko lesioak, eta alternatibak proposatu dituzte (ICDAS¹², esaterako). Baina proposatutako metodo berriak ez dira

gailendu, besteak beste, kalibratze zehatza oso zaila delako hainbat inkestagilek esku hartzean. Era berean, maloklusioak aztertzeko OMEk egindako sailkapenak ere kritika ugari jaso ditu, lausoegia eta zehaztasun gutxikoa dela iritzita. Gainera, ez dago nazioarteko komunitateak erabat onartutako metodo berririk, eta ortodontzia-tratamenduen finantzaketa publikoa ez da inongo PADI sistematan sartzen. Egoera gingibo-periodontalaren ebaluazioak, CPI indizearen bidez (Indize Periodontal Komunitarioa), arazo gehiago sortzen ditu helduekin haur/gazteekin baino. Mugak gorabehera, nazioartean asko erabiltzen da oraindik, batez ere maila dikotomikoan aztertzen denean (osasuntsua, batetik; gingibitisa/lertzoa, bestetik). Azkenik, hortz-fluorosiaren ebaluazioa, erabiltzen den metodoa edozein dela ere, beti da konplexua, eta esmaltearen beste alterazio batzuekiko diagnostiko diferentziala eskatzen du (amelogenesis, desmineralizazioak, tindatze intrintsekoak, etab.). Hori ia ezinezkoa da eskola-testuinguru batean, besaulki odontologikorik eta esmaltea lehertzeko aukerarik gabe. Erabilitako sailkapena (Dean indizea), zalantzarik gabe, berme zientifiko eta epidemiologiko handiena duena da. 1 eta 2 kodeek (eztabaidagarria eta oso arina, hurrenez hurren) dakarte diagnostiko-arazo gehien, *borderline* egoerak baitira. Alabaina, osasun publikoan duten inpaktu erreala minimoa da, eta 4 (moderatu) eta 5 (larria) kodeak dira benetan esanguratsuak.

Bildutako informazioaren kalitateari dagokionez, azpimarratu behar da Çfluorazio sistemikoaĒ aldagaian muga handiak hauteman direla, ez dakigulako zein izan ziren fluorazioaren etete-data zehatzak udalerrri askotan.

Azkenik, informatizazio-prozesuari eta tabulazio-akats posibleei dagokienez, azpimarratu behar da azterlan honetan neurri aktiboak hartu direla arrisku horiek minimizatzeke. Alde batetik, fitxa informatiko bat egin da, zenbait kode bateraezin tabulatzeko eragozten duena eta (eskola-umearen adin-taldea sartu ondoren) informazio kliniko jakin bat sartzeko edo ez eskatzen duena. Bestetik, datu informatizatuen kontrol zorrotza egin da, ausazko 300 fitxa berrikusi dira. Prozesu horretan, detektatutako (eta zuzendutako) erroreak oso gutxi izan dira, eta ez dute inolako eraginik ondorengo analisietan.

Hortzetako txantxarraren bilakaera (28. taula)

7 urtekoen kohortea

EAEko 5 inkestetako (1988,1998, 2008, 2018 eta 2023) 7 urtekoen txgeh indizeen (lehen hortzaldia) azterketa konparatiboa eginda, ikusten da txantxarrak eragindako lehen hortzaldiko hortzen batezbestekoa, nabarmen jaitsita zego-

na —1988an 2,59koa izatetik 1998an 0,99koa eta 2008an 0,75koa izatera igaro baitzen—, igo egin zela pixka bat 2018an, eta gaur egun mantendu egin dela (1,34).

7 urtekoen artean, lehen hortzaldian txantxarrik ez duten ikasleen prebalentzia % 37,2koa zen 1988an, % 70ekoa 1998an, % 76koa 2008an eta % 66koa 2018an, eta gaur egun % 65ekoa da.

Bigarren hortzaldiari dagokionez, TXGEH indizea 0,28koa zen 1988an, 0,08koa 1998an eta 0,04koa 2008an eta 2018an, eta gaur egun 0,03koa da. 1988tik 2008ra bitarte bigarren hortzaldian patologiarik ez duten ikasleen kopurua nabarmen handitu ostean (% 86tik % 97,8ra), orduz geroztik parametroa egonkor-
tu egin da % 97 inguruan. Bistakoa denez, zenbat eta patologia gutxiago, orduan eta errazagoa izango da lorpen harrigarriak erdiestea, eta garrantzitsua da kasu horietan lortutako emaitza onak finkatzea.

12 urtekoen kohortea

TXGEH indizea 2,3koa zen 1988an, 1,05ekoa 1998an, 0,52koa 2008an eta 0,46koa 2018an, eta gaur egungo balioa 0,50ekoa da; beraz, hazkundera ez da oso handia. Datu horiek % 54ko murrizketa erakusten dute 1988-1998 aldirako, % 50ekoa aztertutako bigarren aldirako (1998-2008) eta % 12,5ekoa 2008-2023 aldirako. 12 urtekoen TXGEH indizearen balio horrek txantxar-maila txikiak dituzten herrialdeen artean kokatzen du EAE, OMEren sailkapenaren arabera. Espainian orain arte egindako azterlan guztietatik, TXGE balio hori denetan txikiena da.

Bigarren hortzaldian txantxarrik ez duten ikasleen prebalentziak bilakaera hau izan du: % 31,2 1988an, % 57,2 1998an, % 73,8 2008an, % 75,8 2018an eta % 74,1 gaur egun.

14 urtekoen kohortea

TXGEH indizea 3,98koa zen 1988an, 1,73koa 1998an, 0,90ekoa 2008an eta 0,56koa 2018an, eta gaur egungo balioa 0,78koa da; beraz, hazkundera nabarmena da.

Bigarren hortzaldian txantxarrik ez duten ikasleen prebalentziak bilakaera hau izan du: % 17,7 1988an, % 41,7 1998an, % 61,4 2008an, % 74,3 2018an eta % 66,6 gaur egun.

Sendaketa-indizearen bilakaera (% E/TXGEH)

Indize horiek gorakada handia izan zuten 1988-1998 aldian (% 42tik % 73ra 12 urtekoen artean, eta % 38tik % 74ra 14 urtekoen artean); ondoren, egonkortu egin ziren 1998-2018 aldian. Gaur egun, 12 urtekoen sendaketa-indizea % 68koa da, eta, beraz, 2018ko inkestakoaren parekoa da (% 71,7). Alabaina, 14 urtekoen artean, ikusi da nabarmen handitu dela sendaketa-indizea, 2018an % 64,3koa izatetik, gaur egun % 78,6koa izatera igaro baita.

2018-2023 tartean txantxarrak izandako bilakaerari buruzko berriazko eztabaida

Azterketa epidemiologiko honen emaitzek agerian utzi dute EAEko eskola-populazioak txantxar-indize oso baxuak izaten jarraitzen duela gaur egun. 2018-2023 azken aldi honetan, 7 urtekoen artean, lehen hortzaldiko txantxar-prebalentzia eta txantxar-indizeak egonkortuta daude. Gauza bera gertatzen da 12 urtekoen artean; gainjartzeko moduko datuak ikusten dira, bai txantxarraren prebalentziari dagokionez, bai bigarren hortzaldiko TXGEH indizeari dagokionez. 12 urtekoen artean, gutxi gorabehera 4 ikasletik 3k ez du txantxar-patologiarik. Txantxarren batezbestekoa 0,50ekoa da, eta ez du alde estatistikorik 2018koarekin alderatuta (0,46). Jakina da populazioaren % txiki batek txantxar-lesioak metatzeko joera duela; arrisku-populazio edo arrisku-talde esaten zaio talde horri. Bistakoa denez, horrelako egoera batean, TXGEH indizeak hain txikiak izanik, horiek murrizten ahalegintzeko modu bakarra da arrisku kliniko handia duten ikasleak identifikatzeko estrategiak eta gizarte-langileen laguntza duten politikak gauzatzea, arrisku handieneko ikasleak hautemateko.

Ikuspegi kualitatibotik, 12 urtekoen TXGEH indizean 2018ko azterlanean aurkitutako proportzioek berdin jarraitzen dute; zehazki, lesioen % 68 sendatu dira. 14 urteko nerabeen taldea garrantzi handikoa da; izan ere, PADIren estaldura publikoko finantzaketaren amaieratik gertuen dagoen adin-taldea da, 15 urterekin gertatzen baita hori. Adin-talde horretako adierazleek igoera txiki bat izan dute bai txantxarraren prebalentzian (% 26 2018an eta % 33,4 gaur egun) bai TXGEH indizean (0,56 2018an eta 0,78 gaur egun). Alabaina, TXGEH indizearen gorakada hori testuinguruan jarri behar da, osasun publikoan izan dezakeen benetako inpaktua kontuan hartuta. Egiaz, esan nahi du 2 hortz txantxardun gehiago daudela 10 ikasleko, eta hori hutsala da hazkunderaren benetako proportzioa kontuan hartuta (beste 2 hortz txantxardun guztizko 240 hortz ingurutik).

Intentsitate terapeutikoari dagokionez, sendaketa-indizea 2018an % 64koa izatetik gaur egun % 78,6koa izatera igaro da, eta tratatutako lesioen hazkunde nabarmena da hori.

Sexua aldagaiari dagokionez, 2018ko azterlanean txantxarraren prebalentzia ez zegoen sexua aldagaiarekin lotuta. Txantxar-indizeei dagokionez, 2018an 14 urtekoen taldean soilik hauteman zen desberdintasunen bat (TXGEH handiagoa emakumezkoen artean; $p = 0,02$), baina ez zuen garrantzi epidemiologikorik. Gaur egungo azterketan ere ez da loturarik hauteman sexuaren eta txantxar-prebalentziaren artean. Alabaina, aldagai anitzeko analisiak erakusten duen eran, sexuak efektu nabarmena du txantxar-indizeetan, baina zentzu desberdinarekin lehen eta bigarren hortzaldietan. Izan ere, gizonezkoen batez besteko txgeh 0,20 handiagoa da emakumezkoena baino (analisirako erreferentziatzeko kategoria gisa hautatua izan zen ausaz); aldiz, gizonezkoen batez besteko TXGEH 0,13 txikiagoa da emakumezkoena baino. Edonola ere, zifra horiek ez dute inongo interesik osasun publikoaren ikuspegitik, ez lehen hortzaldikoek ez bigarren hortzaldikoek.

Bizileku-eremuari dagokionez, patologia-intentsitate (indizeak) handiagoa ikusi da landagunean bizi diren ikasleen artean (10.000 biztanletik beherako udalerriak).

2018ko inkestan, maila sozial okupazionalaren arabera azterketan, desberdintasunak ikusi ziren 7 urtekoen (lehen hortzaldia) eta 14 urtekoen artean (bigarren hortzaldia). Maila aberatsenetako ikasleek (I.-II.) txantxar-indize txikiagoak zituzten IV.-V. mailetakoei baino. Azterlan honetan, baieztatu da maila sozialak eragin nabarmena duela bai txgeh indizean bai TXGEH indizean adin-talde guztietan. Gradienteak ikusten da argi eta garbi: zenbat eta maila sozial altuagoa (maila sozial baxuenarekin alderatuta), orduan eta txikiagoak dira indizeak. Bereziki esanguratsua da 14 urtekoen artean TXGEH indizea ia bikoitza dela maila sozial baxuko ikasleetan I.-II. maila sozialetako ikasleekin alderatuta ($p < 0,001$). Aldi berean, maila sozial baxuko ikasleen txantxar-indizeak handiagoak izateaz gainera, sendaketa-indizeak txikiagoak dira. Hori horrela, 5 eta 7 urtekoen lehen hortzaldian, lesioen % 40-48 sendatuta daude maila sozial altukoen artean, eta maila sozial baxukoen artean, berriz, % 21-22 soilik. Hori berdin gertatzen da 12 eta 14 urtekoen bigarren hortzaldian ere, baina arrakala txikiagoa da.

Txantxar-patologiaren hiru lurraldeen arteko konparazioa eginda, ez da desberdintasun esanguratsurik ikusten, ez txantxar-prebalentziari dagokionez ez txan-

txar-indizeei dagokienez, ezin adin-taldetan, 2018ko azterlanean ere ikusi zen eran.

ÇGurasoen jatorri espainiarra/atzeritarraÈ aldagaia esanguratsua izan zen aurretiko aldagai biko azterlanetako txantxar-indizeen zenbait konparaziotan, eta aldagai anitzeko eruedetan ere esanguratsu gisa hauteman da: txantxar-indizeak handiagoak dira (lehen hortzaldian zein bigarreanean) jatorri atzeritarreko ikasleen artean. Zeharkako azterlanetatik ezin daiteke hauteman kausalitaterik. Alabaina, emaitzak ikusita, litekeena da jatorri atzeritarreko ikasleen artean txantxar-patologia handiagoa aurkitu izana dieta-eredu desberdinak (kariogenikoagoak) izatearekin lotuta egotea. Azterlan honetan ez da dietari buruzko daturik bildu, eta interesgarria izango litzateke etorkizuneko azterketa epidemiologikoetan aldagai hori sartzea.

2018ko azterlanean, hortzen egoera fluorazio sistemikoaren arabera aztertuta, desberdintasunak hauteman ziren 7 urtekoen eta 14 urtekoen artean. 7 urtekoen artean, lehen hortzaldian txantxarrik ez zuten ikasleen proportzioa % 70ekoa zen fluoraturtako udalerrietan (% 60koa fluoraziorik gabeko udalerrietan; $p = 0,001$). 14 urtekoen taldean ($p = 0,03$), bigarren hortzaldian txantxarrik ez zuten ikasleen proportzioak % 77koa (fluoratuak) eta % 71koa (fluraziorik gabek) ziren. Azterlan honetan egindako aldagai anitzeko azterketak erakusten du ur fluoraturik eduki ez dutenen artean txgeh indizea 0,31 handiagoa dela eta TXGEH indizea 0,14 handiagoa dela ur fluoratua dagoen eremuetan bizi diren ikasleekin alderatuta. Horri dagokionez, bi zehaztapen garrantzitsu egin behar dira. Alde batetik, aipatzekoa da fluorazio sistemikoa aldagaiaren kategorizazioari dagokionez bildu den informazioaren kalitatea. Fluorazio-eteteen datei buruzko datuak gutxi gorabeherakoak dira, eta, batzuetan, zalantzarriak. Hori muga handia da benetan jakin ahal izateko zenbat urtez egon diren fluorazio sistemikoaren eraginpean ikasleak. Bigarren zehaztapena aldagai anitzeko analisitik ateratzen da, eta agerian uzten du azken 5 urteotan zurren inpaktu txikia izan duela uraren fluorazioak. Hain zuzen ere, inoiz fluoratu gabeko udalerrietan bizi diren ikasleen artean, txantxar-indizearen aldea 0,31 handiagoa soilik da lehen hortzaldian, eta 0,14 handiagoa bigarreanean. Horrek esan nahi du lehen hortzaldiko 3 hortz txantxardun gehiago direla 10 ikasleko, osasun publikoko neurri hori jaso duten ikasleekin alderatuta. Bigarren hortzaldian, inpaktu erreala are txikiagoa da: 1,4 hortz txantxardun gehiago 10 ikasleko.

Azkenik, ikusi da lotura garbia dagoela eskuilazte-maiztasunaren eta txantxar-indizeen artean, bai lehen hortzaldian bai bigarreanean. Hortzak gutxienez egunean bi aldiz eskuilazten ez dituzten ikasleek txantxar-indize handiagoak dituzte. Hori horrela, berriz berretsi da egunero fluoruro kantitate txikiak ematea oso

garrantzitsua dela hortzetako txantxarrak prebenitzeko, are gehiago jakinda jendeak erabiltzen dituen hortzetako pasta ia guztiek fluorra dutela osagaien artean.

Egoera periodontalaren bilakaera

Egoera periodontalen prebalentzia ia egonkortuta dago 2018az geroztik, aztertua izan den 3 adin-taldeetan (7, 12 eta 14 urte). Oro har, gaur egun eta duela 5 urte, 7 urteko 10 adingabetik 9k hortzoietako osasun ona dute, eta zifra hori % 64ra jaisten da 12 urtekoen taldean, eta % 56ra 14 urtekoen taldean. 2018. urtearekin alderatua, adin-talde guztietan ikusi da seiren osasungarrien batez-bestekoa egonkortu egin dela.

Hortz-fluorosiaren bilakaera

Esmaltearen opakutasunak kausa ugariren eraginez sortuak izan daitezke, fluoruro gehiegi irensteaz gainera. 2018ko azterlanean, hortz-fluorosiaren prebalentzia orokorra % 16,4koa izan zen. Hautemandako lesio gehienak Deanen 1 eta 2 kodeetakoak ziren (eztabaidagarria eta oso arina). Bi kode horietan sartzen zen erregistratutako anomalia guztien % 79. Aztertutako ikasleen % 0,8rengan soilik hauteman ziren kode larrireneko kasuak (fluorosi ertaina eta fluorosi larria). Azterlan honek erakutsi du fluorosiaren prebalentzia orokorra % 7 ingurukoa dela, eta 1 eta 2 kodeetako dela hautemandako kasuen % 80-90. Fluorosi ertaineko 5 kasu soilik diagnostikatu dira, eta fluorosi larriko kasurik ez. Oraingoan ere, 2018ko txostenean azaldu zen eran, analisi honen guztiaren alderdi garrantzitsuena da egiaztatu dela ez dagoela fluorazio sistemikoari egotz dakioken fluorosi-arazo larririk.

Euskadiko eskola-umeen aho-hortzetako osasunaren egoera Espainiako egoerarekin alderatuta

Azterketa hori 12 urtekoen taldearekin soilik egin ahal izango da, Espainian egiten diren inkestetan aztertzen diren adin-taldeekin bat datorren bakarra baita. Espainian egindako azken azterlanaren azken datuak 2020koak¹⁰ dira.

Txantxarrari dagokionez, patologiarik ez duten 12 urteko ikasleen ehunekoa pixka bat handiagoa da Euskadin Espainiarako argitaratutakoa baino (% 74 Euskadin versus % 71 Espainian). Euskadiko TXGEH 0,50ekoa da (KT-% 95 0,44-1,55), eta Espainiako batezbestekoa, 0,58koa (KT-% 95 0,46-0,70); egoera antzekoa da beraz. Indize horren azterketa xehatuak erakusten digu sendaketa-indizea (en-

pastatutako hortzen % TXGEH osoari dagokionez) Espainian kalkulaturakoaren parekoa dela (% 68 Euskadin versus % 70 Espainian).

Egoera periodontala alderatuta, argi eta garbi ikusten da hortzoietakako osasun-egoera hobea dela Euskadin Espainian baino. Euskadiko 12 urteko haurren artean, hortzoietakako osasun ona dute ikasleen % 64k (% 41k Espainian), hortzoietakako odoltzea dute % 22k (% 31k Espainian) eta lertzoa dute % 14,3k (% 28k Espainian). Egoera gingibal-periodontal hobe horrek lotura izan dezake Euskadin aho-hortzetako higieinarekin lotutako ohitura hobeak izatearekin: 12 urteko adingabeen % 76k diote gutxienez egunean 2 aldiz eskuilatzen dituztela hortzak (Espainian, % 68k).

Azkenik, Euskadiko zaintza epidemiologikoaren ikuspegitik garrantzitsua da hortz-fluorosiaren prebalentzia (fluoratuta egon delako urte luzez); bada, ikusten da Euskadiko ikasleei buruzko zifrak (fluorosi arina % 0,8k eta fluorosi ertaina % 0,2k) Espainiarako argitaraturakoen parekoak direla (% 0,5 eta % 0,7 hurrenez hurren).

ONDORIOAK

1. 5 urtekoen taldean, 10 haurretik 3k txantxarren bat dute, lesio gehienak sendatu gabe daude, eta oso bisita gutxi egiten dira dentistarenera.
2. 7 urtekoen taldean, lehen hortzaldian hobekuntza nabaria egon da txantxarean 1988rekin alderatuta.
3. Bigarren hortzaldiko txantxarrek beherakada handia izan dute 12 eta 14 urtekoen artean, bai prebalentziari dagokionez, bai erasandako hortzen batez besteko kopuruari dagokionez.
4. Sendaketa-laguntza nabarmen handitu da 12 eta 14 urtekoen bigarren hortzaldian. Lehen hortzaldiko sendaketa-indizeak izugarri txikiak dira, eta maila sozial okupazionalarekin lotuta daude.
5. Sexuak, maila sozial okupazionalak, gurasoen jatorriak, bizilekuaren populazio-tamainak eta eskuilatze-maiztasunak eragina dute txantxar-erasanaren batez besteko indizeetan, nola lehen hortzaldian hala bigarrean.
6. Hortzoien osasuna hobetu egin da adin-talde guztietan, 1988rekin alderatuta.
7. Euskal Autonomia Erkidegoan, hortz-fluorosi ez da osasun publikoko arazo; erasan arin edo ertainaren zifrak izugarri baxuak dira, Espainiako zifren parekoak.
8. Hortzak gutxienez egunean bi aldiz eskuilatzen dituzten ikasleen ehunekoak % 63 (5 urtekoak) eta % 76 (12 urtekoak) artekoak dira.
9. 7 urtekoen taldean, 2 haurretik 1 dentistarenean izan da azken urtean; zifra hori % 85era igotzen da 12 urtekoen artean, eta % 88ra 14 urtekoen artean.
10. Dentistarenean izan diren 12 urteko eta 14 urteko ikasleen % 86-87k PADI erabili dute.

GOMENDIO GEHIGARRIAK

Ateratako emaitzen eta egindako analisien arabera, honako gomendio hauek ematen ditugu:

1. 1. gomendia: 5 urtekoen taldean % 29ko txantxar-prebalentzia hauteman da, eta batez besteko erasana hortz 1ekoa izan da. Aho-hortzetako Osasun Zerbitzuen Zorroa Handitzeko Planean aurreikusi da 0-5 urteko adingabeak ere PADI programetan sartzea. Lehen hortzaldian enpasteak egitea aurreikusten ez bada ere, jaso da substantzia birmineralizatzaileak eta fisura-zigilatzaileak erabiltzea. Adingabe horien kudeaketa klinikoa eta portaerazkoa (3 urtera artekoak batez ere) erronka berri bat da orain arte PADI programek egin dituzten ekintzetarako, 7 urterekin hasten baitziren. Hori horrela, iruditzen zaigu adin-talde horretarako berariazko protokoloak sortu beharko liratekeela, eta horietan argi eta garbi landu beharko litzatekeela adingabearen arriskuaren zehaztapena eta gomendatzen diren laguntza-neurriak, ebidentzia zientifikoan oinarrituta.

2. 2. gomendia: azterlan honen emaitzek argi eta garbi adierazi dute lotura dagoela adingabeen maila sozialaren eta txantxar-patologiaren artean. Gainera, oraingoan ere hauteman da txantxar-patologiaren kontzentrazio handia dagoela haurren ehuneko txiki batean (adingabeen % 12-15 inguruk biltzen dute taldearen guztizkoologiaren % 70). Kontuan hartuta txantxar-indize txikiak hauteman direla, horiek murrizteko balioko lukeen osasun publikoko estrategia posible bakarra da norbanakoaren arriskua zehaztea, gizarte-langileen laguntza neurriekin batera, patologia-arrisku handieneko adingabeak hautemateko.

3. 3. gomendia: aldagai anitzeko analisiek erakutsi dute lotura garbia dagoela ikasleen jatorriaren (atzerriarra *versus* espainiarra) eta txantxar-indizeen artean: patologia gehiago hauteman da jatorri kanpotarrekoen artean. Aurkikuntza hori azaltzeko hipotesi onargarriena da pentsatzea dieta-desberdintasunekin

lotuta dagoela. Komeniko litzateke dietari buruzko galdera batzuk sartzea ikasleen aho-hortzetako osasunari buruzko hurrengo azterlanetan.

4. 4. gomendia: azterlan honen emaitzek erakutsi dute fisura-zigilatzaileen prebalentzia % 9-10 artekoa soilik dela 12 eta 14 urteko adingabeen artean. Nahiz eta txantzar-prebalentzia murriztu izana arrazoizko azalpena den beherakada hori justifikatzeko, ez du guztiz justifikatzen zergatik diren hain txikiak zigilatzaile-erabileraren zifra horiek. 12 urteko haurren % 26k eta 14 urtekoen ia % 33k txantzarren bat dute. Zigilatzaile-erabileraren zifrak % 20 ingurukoak izango balira, txantzar-prebalentzia murriztu egingo litzateke, eta are gehiago kontuan hartuta adin horietan ia lesioen % 90 lehen hortzaldiko lehen haginaren azal oklusalean egoten direla. Horregatik guztiagatik, oso gomendagarria iruditzen zaigu dentista itunduei prebentzio-neurriei buruzko protokolo eguneratuak ezagutaraztea; horrela, gainera, haien prestakuntza-maila etengabe hobetuko litzateke.

BIBLIOGRAFIA

1. *Euskal Autonomia Erkidegoko haurren aho-hortzetako osasunaren azterketa epidemiologikoa*. Hortzetako osasun publikoari buruzko dokumentu teknikoak, 2. zk. Osakidetza; Gasteiz, 1991.
2. *Euskal Autonomia Erkidegoko haurren aho-hortzetako osasunaren bigarren azterketa epidemiologikoa. Haur-ikasle populazioa, 1998*. Hortzetako osasun publikoari buruzko dokumentu teknikoak, 5. zk. Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza. Gasteiz: 1998.
3. Osasun eta Kontsumo Saila. *Euskal Autonomia Erkidegoko haurren ahohortzetako osasunaren hirugarren azterketa epidemiologikoa* (2008). Hortzetako osasun publikoari buruzko dokumentu teknikoak, 6. zk. Gasteiz: Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Eusko Jaurlaritza, 2010.
4. Osasun eta Kontsumo Saila. *Euskal Autonomia Erkidegoko haurren ahohortzetako osasunaren laugarren azterketa epidemiologikoa* (2018). Datuak argitaratu gabe.
5. Osasun Ministerioa. *Osasun Sistema Nazionalen Aho-hortzetako Osasun Zerbitzuen Zorroa Handitzeko Plana*. Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Kontseiluaren 2022ko ekainaren 15eko Osoko Bilkuran onetsia.
6. WHO. *Oral Health Surveys: Basic methods*. Third edition. Geneva: World Health Organization. 1987
7. WHO. *Calibration of examiners for Oral Health Epidemiological Surveys*. World Health Organization. Geneva: 1993.
8. BASCD. *ÇGuidance on the statistical aspects of training and calibration of examiners for surveys of child dental health*. *Community Dental Health* 1997; 14: (supplement 1): 18-28

9. Landis JR, Koch GG. ÇThe measurement of Observer agreement for categorical dataĖ. *Biometrics* 1977; 33: 159-74
10. Bravo M, Almerich JM, Canorea E et al. *Espainiako Ahoko Osasunari buruzko 2020ko inkesta*. RCOE 2020; 25: 4. zk. (monografikoa)
Eustat. Euskal Estatistika Institutua. 2022/07/10ean kontsultatutako datuak. https://eu.eustat.eus/elementos/ele0013900/ti_poblacion-de-la-ca-de-euskadi-por-nacionalidad-grupos-de-paises-segun-territorio-historico-y-sexo-01012023/tbl0013998_e.html
11. Pitts NB, Ekstrand KR. ÇInternational Caries Detection and Assessment System (ICDAS) and its International Caries Classification and Management System (ICCMS) methods for staging of the caries process and enabling dentists to manage cariesĖ. *Community Dent Oral Epidemiol* 2013; 41: e41-e52

1. taula: **lurraldekako eta populazio-tamainaren arabera banaketa, adinaren arabera (n = 4.978).**

Aldagaia	5 urte Kop. (%)	7 urte Kop. (%)	12 urte Kop. (%)	14 urte Kop. (%)
Guztira	1.045 (100)	1.250 (100)	1.252 (100)	1.231 (100)
Lurraldeka				
